



**Ebazpena, 2016ko maiatzaren 27koa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez ebatzi egiten baita Euskal Autonomi Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta itunpekoiei IKT Heldutasuna ziurtagiriak eskuratzeko egindako deia**

Hezkuntza sailburuordearen 2016ko otsailaren 1eko Jarraibideen bitartez Euskal Autonomi Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta itunpekoiei IKT Heldutasuna ziurtagiriak eskuratzeko deia egiten da. Hiru maila daude, eta ikastetxeek edozeinen ziurtagiria eska dezakete, aldez aurretik, aurreko maila dutela egiaztatu behar izan gabe.

Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, aztertuak eta sailburuordearen 2016ko otsailaren 1eko Jarraibideetan ezarritakoarekin bat etorri eta Hautaketa Batzordeak proposatuta, hau

**EBAZTEN DUT:**

Lehenengoa.- Eranskinetako zerrendan azaltzen diren ikastetxeei bertan jasotzen den IKT Heldutasuna maila esleitzea.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka egiteko, ikastetxeek erreklamazioa jar diezaiokete Hezkuntza sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 27a



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**BEGOÑA GARAMENDI IBARRA**  
HEZKUNTZA BERRITZATZEKO ZUZENDARIA